



243. zenbakia

• Iraila 2024 •

# pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



## OROZKOTIK DONIBANE LOHIZUNEN BARNIA (Mikel Taberna - Arkanbele kantak, 2021)

Adardun egaslari Orozkon  
Attittamendiko Mendaron  
Langosta Dorraon

Arkulo Azkainen (eta Alkaiagan)  
Martin bonbolo Elduainen  
Peruberri Errezilen

Akalamendi Leitzan  
Kirrikirri Zornotzan  
Mamartalo Gaintzan

Barbalot Barkoxen  
Basandere Beskoitzen  
Salbatako Oñati-Araotzen

Amama mendiko Azkoitian  
Diabro Hondarribian  
Zezen Arrankudiagan

Kakalardo Orion  
Karramarro Aramaion  
Kotxorro Otxandion

Anaton Garrüzen  
Arkanbele Donibane Lohizunen  
Kukulamera Oiartzunen

Kakamarro Eugin  
Karraskaldo Zeanurin  
Kükümarro Montorin

Arkaule Etxalarren  
Basajaun Mugerren  
Alkate mozorro Berueten

Kapatarro Ikaztegietan  
Mokotarro Amezketan  
Zapatero Jaurrietan

## Irailaren 16tik aurrera Esan Erran irratiko denboraldi berria martxan!



Astelehenetik ostegunera, zuzenean, goizeko 10:00etan:  
**EGUN ERO magazina**  
(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Eta, gainerakoan, Arrosa sareko irratsaioak eta  
Zebrabidea magazina, Euskalerrria irratia, Naiz irratia,  
puntako musika, podcast desberdinak...

Ostiraletan, goizeko 10:00etan, txandakatu:  
**EGUN ERO KANTUZ eta MEMORIAREN TXOKOA**  
(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

**PIZTU ESAN ERRAN!**  
FM-ko 107.9 edo  
[amezti.eus/irratia/zuzenekoa](http://amezti.eus/irratia/zuzenekoa)

Ostegunetan, 19:00etan,  
**BROMA GUTXI**  
(larunbatetan 20:00etan errepikapena)



## ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

### Pulunpe sarea

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

### Emaila

pulunpe@gmail.com

### Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok bat elkarte eta Patxi Irurzun.

### Koordinatzaileak

Garazi Zabaleta, Itziar Perez eta Julene Etxauri.

### Tirada

1.700 ale

### inprimategia

Gertu

### Maketazioa

Zas Komunikazioa

### Azaleko Argazkia

Behia Berueten. Egilea, Garikoitz Salbotx

### Lege gordailua

NA 721/93

Inprimategira irailaren gan bidalia

## AURKIBIDEA

04

**Gaurko gaia.** *Parisen erbesteratuak*

07

**Berezia.** *Euskal artzaiak ameriketara, egitaraua*

08

**Kronika.** *Denok bat jubilatuen elkarte*

10

**Albisteak.**

14

**Elkarrizketa.** *Teresa Zabalza jazz musikaria*



20

**Ekimenak.** *Babes Ofizialeko Etxebizitzak Ositzen*

22

**Elkarrizketa.** *Ruben Ruiz idazlea*

24

**Aspaldiko Kontuak.** *Berueteko lapurrak (IV)*

27

**Ardo Frexkoa.** *Frantzia handia*

28

**Kirola.** *Muskizko BTTa*

30

**Zer ikusi** *amezti.eus-en*

32

**Zer irakurri.** *Ultzamako liburutegia*

33

**Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak.** *Ekaina eta uztaila.*

## Maria Nieves Zilbeti Ostitz Olaguearrarekin elkarrizketan

Baten bati arraroa eginen zaio Gaurko Gaia atalean erbestea hizpide izatea. Baina gure gaurko protagonistak dioen bezala, etengabe errepikatzen den historia da berea. Maria Nieves Zilbeti Ostitz dugu gure elkarrizketatua, baina 75 urte baino gehiago bizi izan den Parisen, Marie-Neige Cilveti Ostiz gisa ere ezagutu dute. Nafarroako eta Euskal Herriko beste askok bezala, etxea utzi eta iheslari bihurtu behar izan zen 12 urte besterik ez zituela. Olagueko Martikorena zen etxe hori, baina urteek ez dute moztu Nafarroarekin duen lotura.

Hendaian duen pisu txikian hartu gaitu Maria Nieves Zilbeti Ostitzek. Bertan pasatzen baititu udak, bere Nafarroa maitetik gertuago. 88 urte ditu, baina bizia da oso. Froga gisa, elkarrizketa eskaini digun egunean, uztaila erdialdeko arratsalde atsegin batean, ahizparen bilobarekin ere jarri du hitzordua, Zilbetik oraindik gidatzen duen bere Fiat automatikoa erabiltzen irakatsi behar baitio. Kultur zale amorratua, pastoralak, zinema edo kontzertuak ikusteko mugitzen da Zilbeti.

### Gerrarekin batera sortua

1936ko ekainaren 26an jaio zen Maria Nieves Zilbeti Ostitz. Handik hilabete eskas batera, faxistek estatu kolpea gauzatu zuten, eta hiru urteko gerra izanen zen Espainian eta Euskal Herrian. Joaquín María Zilbeti Iraizotz aitak Olagueko Martikorena etxea utzi eta ihes egin behar izan zuen 1937an, urtebete zuen alaba txikia eta Emilia Ostitz Erratzu emaztea bizkiekin haurdun zela utzita. "Aita, Olagueko Tranparenana etxekoa zen. Amaren aita sozialista

“ Aitak pertsona judu askoren bizia salbatu zuen ”

zenez, Ostitz batekin ezkondua egoteagatik arriskuan zen aita. Aitaren aldekoen artean ere bat baino gehiago erail zuten, maisua eta komunista izateagatik bat". Frankistak aitaren bila joan behar zirenean, gerrara deitzeko, ihes egin zuen. Gudarien batailoien batekin topo egin zuen, haiei batu eta gerran borrokatu zuen.

### Erresistentzian

Zilbetiren aitak Francoren garaipenaren ondoren Frantziara ihes egin zuen. Han, Pautik gertu dagoen Gurseko errefuxiatu-esparruan sartu zuten, Frankismotik ihes egin zuten beste euskaldun eta errepublikar asko bezala. Maria Nieves Zilbeti: "Gursen euskaldun asko zegoen. Duela gutxi baieztatu ahal izan dugu bertan izan zela, Parisko Euskal Etxeko lagun bati artxiboetara joatea gustatzen zaiolako eta egun batean, haren aitaren informazio bila ari zela, Zilbeti ikusi zuen. Gure aita zen". Naziek Frantzia okupatu zutenean kontzentrazio esparrua bihurtuko zen.



Maria Nieves Zilbeti Ostitz txikitako argazki bat eskuan. Argazkian urtebete inguru du, aita ihes egin zueneko garaikoa



Gursetik Argeles sur Mereko beste esparru batera bidali zuten, Mediterraneoan: "Orduan eskulan merke bila etorri ziren, eta, aita, nekazaria zenez, belarra moztzen jarri zuten. Frantziako beste puntan, Jura departamentuan, Suizako muga, Alpeetatik gertu. Gero, egurgile gisa ere aritu zen". Baina, naziek harrapatzeko eta Alemaniako kontzentrazio esparru batera bidaltzeko arriskuan, berriz ere ihes egin behar izan zuen: "Makisekin joan zen, Juran bertan, mendian. Euskalduna zela esan zuenean juduak mugatik Suitzara ihes egiten laguntzen jarri zuten, euskaldunak muga pasatzen trebeak zirela iritzita. Horrela, aitak pertsona askoren bizia salbatu zuen".

### Bi maleta

1948an, Bigarren Mundu Gerra amaituta, aitarekin elkartzeko ihesa prestatzen hasi ziren Olaguen. Maria Nieves Zilbeti Ostitzek 12 urte zituen eta Emilia eta Pili ahizpa bizkiek, 10. "Nik urtebete eta amak ahizpa bizkiekin haurdun zegoen aitak alde egin zuenean. Aitak ez zekien bi alaba gehiago zituenik ere".

Eta, ihesa gauzatzeko eguna iritsi zen: "Espainia eta Frantziaren arteko muga itxita zegoen, beraz, mendian barna joan behar ginen. Aitaren arreba bat etorri zen gurekin. Zugarramurdiraino autobusez egin genuen bidea, Baztanesan, eta gogoratzen naiz Belateko gainean Guardia Zibilak autobusak gelditzen zituela. Gurea ere gelditu zuen eta baimenak eskatu zizkiguten baina ez genuen arazorik izan. Autobusean Olagueko beste familia bat ere bazegoen, ezagutuko ez bagina bezala egin genuen. Haiek ere konturatuko ziren zer gertatzen ari zen. Zugarramurditik Sarara, berriz, oinez joan ginen. Ama, ordea, gauzez pasatu zen. Hark bide luzeagoa egin zuen oinez, Doneztebetik Sarara. Martikorenatik bi maleta besterik ez genituen eraman".

### Iritsiera Parisera

Bi maleta horiekin, deus gehiago gabe, iritsi ziren Saratik Parisko pisura: "Olagueko etxe erraldoi hartatik, bi logela besterik ez zituen pisu batera iritsi ginen. Altzariak eta denetarik zuen etxe bat zen, baina ura eta komunak, partekatuak ziren, eskaileran zeuden. Han ere

“ Etxetik oso urrun ginen denok eta horrek elkartzen gintuen ”

gerra ondorengo garaia zen eta gauza asko gaizki zeuden. Gure ama bertan sartu eta negarrez hasi zen. Gainera, Frantzian emazteak senarraren abizena hartzen du (orain aldatu behar omen dute) eta Madame Zilbeti deitzen zuten, horregatik, berak esaten zuen: Izena ere galdu dut hemen".

Hiru Zilbeti ahizpak berehala hasi ziren eskolan: "Izugarrizko arreba jarri zigun maistra bat genuen. Nik negar ere egin nuen eskola bukatu nuenean benetan emakume zoragarria izan zelako. Ez ginen errefuxiatu bakarrak. Espainolez hitz egiten genuen hiru, Italiako beste bat (Mussoliniren diktaduratik ihes egin zuena) eta Hungariako beste neskatila bat geunden".

Ondoren, kontabilitatea ikasi zuen: "Matematiketan ona nintzen eta orduan kontabilitatea edo horrelako zerbait ikasi behar nuela esaten zidaten. Nik orduan obeditu egin nuen, txintxo-txintxo, orain egiten ez dudana (irriak)". Hainbat lantokitan aritu zen, tartean, Gernika taldeko sortzaileak, Paul Legarralde zuen bidaia agentzian: "Ama euskalduna eta aita Korsikakoa zuen. Lana eskaini zidan eta hara joan nintzen". Eta mundu osoan bidaiatzeko aukera eman zion beste agentzia handiago batean aritu zen ondoren.

### Euskal komunitatea

Erbestean, euskal komunitateak berebiziko garrantzia izan du hiru ahizpendako, tartean, Gernika Taldeak. Maria Nievesek 18 urte zituela eta ahizpek 16 sartu ziren



▲ Olagueko Martikorena etxean jaio zen Maria Nieves Zilbeti Ostitz




taldean. 1932an sortutako abesbatza eta dantza taldea zen: "1937ko bonbardaketaren ondoren izena aldatu eta Gernika jarri zioten. Erdiak iparraldekoak ziren eta beste erdiak hegoaldekoak, gutxi gorabehera. Hegoaldekoak, noski, errefuxiatuak ginen. Taldean denetarik izan gara, langileak eta maila sozioekonomiko altuagokoak baina inork inor mespretxatu gabe, denek elkarrengandik ikasiz. Oso kide onak izan gara. Ez ginen beti ados egoten baina orduan bozkatu egiten genuen eta gehiengoak nahi zuena aurrera ateratzen zen. Etxetik oso urrun ginen denok eta beharbada horrek elkartzen gintuen". Taldean 50 izatera iritsi dira.

Urte batzuk geroago, 1956an, lehenengo Parisko Euskal Etxea ere sortu zen eta Gernikak inaugurazioan parte hartu zuen: "Eusko Jaurlearitzaren ordezkartzatik ere etortzen ziren festak eta bilera politikoak egiteko.

Ahizpak eta hirurok oso pozik ginen". Gaur egun beste eraikin batean jarraitzen du Parisko Euskal Etxeak, eraikin handiago batean, eta bere jarduna zabala da: ikasleendako eta lanera doazenendako logelak ditu, sukaldea, saloia, barra, euskara klaseak eskaintzen dira eta Gernika eta bestelako abesbatzek entseatzeko gelak dituzte, besteak beste.

### Errefuxiatua errefuxiatuak laguntzen

Maria Nieves Zilbetik 62 urterekin erretiroa eskatu zuen, baina, jakina, ez da geldirik egon. Ordutik, elkarte batean gaur egun Parisa iristen direnak laguntzen aritzen da, beraz, 25 urte baino gehiago daramatza horretan: "Astean behin, bi orduz, frantses klaseak ematen dizkiot edozein tokitatik datorren edozeini, ez zait inporta nondik datozen. Erlijio guztietako ikasleak izan ditut: musulmanak, Egiptoko kristauak



**Euskal Etxeko txartela, Maria Nievesen bi abizenak agertzen direla: "NANan ere bi abizenak jarri ahal izan ditut. Amarekin akordatu nintzen".**

(koptoak), Mongoliatik etorritako neska bat (budista)".

Haiek bizi dituzten egoera gogorak ederki ulertzen ditu, bera ere errefuxiatua izan zelako: "Familia, kultura, herria, hizkuntza derrigorrez uztea. Emigratu ez duenak ezin du jakin zer den hori". Eta, aldi berean, izugarriko ekarpena egiten diotela onartzen du: "Nik asko ikasten dut beraiekin, pertsona orok baitu zerbait partikularra, horregatik, toleranteagoak izango ginatkeela uste dut jende gehiago ezagutuz gero".

## Transmisioaren garrantzia

Aritzuko Amaia Urdanizek lagundu digu Hendaiaara. Hain zuzen ere, bere sare sozialetan ezagutu genuen Maria Nieves Zilbeti Ostitz. Amaren lehengusina du eta urruti bizi diren arren, eskutitz bidez elkarren berri izaten dute ia hilero. Arte Ederrak ikasi dituen Urdanizek berak marraztutako postalak bidaltzen dizkio, euskal kulturaren irudiren bat duten beste batzuekin batera. Tia deitzen duen Zilbetik txukun-txukun erantzuten dio beti: "Izebak derrigorrez alde egin behar izan zuen baina hori bere alde aprobetxatu zuen. Jakintza izugarria du, handik eta hemendik edan duelako, asko irakurtzen du, ikasten du eta niretako zabalik dagoen liburu bat da. Gu oso harro

gaude izebaz". Izebaren bizipenak oso presente izaten dituzte etxean: "Egunero ikusten ditugu beren herrialdea utzi behar izan duten pertsonak. Kultura ezberdinak ditugu eta batzuetan talka egiten du horrek, baina etxean esaten diguten bezala, akordatu behar gara alde egin behar izan duten guzti horiekin".

Ahizpa Emiren semeak eta bilobek hainbatetan bisitatu dute Martikorena: "Gernika taldearekin Iruñera etorri zirenean, Nafarroako ikurrina erosi zuten eta Tourra haien kafetegiaren paretik pasatzen zenez bandera jarri zuten. Urrun egon arren, garenak indar handia du".



▲ Amaia Urdaniz eta Maria Nives Zilbeti. Mahaian elkarri bidaltzen dizkieten eskutitzak eta postalak

# Ekimen ederra, Berueten

Berezia



## Euskal Artzainak Ameriketan

Berute, 2024ko Urriak 12 / 12 Octubre 2024

### EGITARAU/PROGRAMA:

10.00	10.00 - 12.00	10.00 - 14.00	12.00	14.00	16.00	16.00	19.15
Autobusen iritsiera	Gosaria	Erakuseta eta bertako artisauek	Meza (Ultzama abesbatza)	Highball eta bazkaria	Menditarrak	Ibarra DJ	Autobusen irteera
Llegada de autobuses	Almuerzo	Exposición y artesanos locales	Misa (coro Ultzama)	Highball y comida			Salida de autobuses

### Antolatzailea / Organizador:



### Babesleak / Patrocinadores:



**Etxeko pulunpen soinua ameriketara lagun!**

### Laguntzaileak / Colaboradores:



Bonuak, irailaren 1etik aurrera jarriko dira salgai, hilaren 26ra artio puntu hauetan.

Berueteko ostata - Jauntsarats: Apeztegi - Jubilatuen elkarte - Aroztegi: Izarpe kanpina



### *Kalderetea Ultzaman eta Txakolina Getarian*

Oraingo alean uztailean eta abuztuan gertatutakoari buruz izanen da Denok Bat elkartearen kronika xume hau. Uztailean, sanferminak direla, elkarteak ez du txangorik prestatzen. Hala ere, taldetxo batek hasi zuen ekintza bati jarraipena ematen diogu.

Badira urteak, sanfermin giroan, kalderete festa ospatzen hasi zirela. Hasieran taldetxo batek antolatzen zuen eta gehienak elkartearen ibiltzen baziren ere janaria erosi eta prestatzea bere gain hartzen zuten. Lagun arteko bazkari ederra egiten zen, eta ondorengo katek eta mus partidek ez zuten huts egiten, noski. Berriki, zuzendaritzatik eramaten da eta aurten, iaz bezala, Lizason egin zen; iazkoa Egain elkartearen eta aurtengoa Kuartelenea etxeak daukan frontoian, nahiz eta elkartearen ere erabiltzea izan genuen.

Baziren 66 apuntatuak festarako, prestatutako hiru kalderetei buelta emateko. Frontoia eta elkartearen ondoan egonik, Kuartelenea leku apartekoa da horrelako ekintzetarako, kanpoko beroa

sartzen ez den horietakoa; gainera, bazkariaren eta giroaren gozatzeko ezin hobea. Kantuak, akordeona eta mus partidak jokatu ondoren amaitu zen festa, datorren urtean errepikatzeko gogoarekin. Egain elkarteari eta Lizasoko kontzejuari esker mila beren laguntzarengatik, primeran egon ginen!!

Abuztuko txangoan Zarautza abiatu ginen. Egia esan batzuk Zarautza, beste batzuk Getariara eta gainontzekoak Getariako txakolindegia batera abiatu ziren, hiru aukerak genituelako. 79 lagun joan ginen eguna pasatzera, bi autobusetan. Batzuk hondartzan, besteak ibilian, eta gainontzekoak txakolinean ibili ziren. Lehen geldialdia, Zarautz, han jaitsi ziren 20 bat lagun. Gero, Getariara abiatu

zen autobusa, han beste hogei jaitsi ziren; eta azkeneko 24ak, Akarregi Txiki txakolindegian.

Txakolindegia historia kontatu ziguten, bi baserriaren artean sortua, naiz betidanik txakolina egiten zen. Mahastiak zaintzeko egin dituzten lanak erakutsi zizkiguten. Paraje politak ziren ingurukoak, mahastegitik itsasoa ere ikusten zela. Beraiek mahasti guztiak parraletan dauzkate eta bilketa azpitik egiten dute.

Txakolindegia ere erakutsi ziguten, eta ardoa egiteko prozesu guziaz azaldu. Silo moduko altzairuzko tankeak zeuzkaten lehen ardoa egiten joateko eta gero gordetzeko, dena txukun eta garbia, modernoa zirudien.







Bukatzeo, dastatzea egin genuen. Mahai luze batean jarri zizkiguten antxoia eta atun plater batzuk eta noiz behinka ardo kopa betetzera joaten ginela, trago goxoa egin genuen. Ondoren, paseotxo bat eginez jaitsi ginen Getariara, han gelditutakoekin batera, autobusa hartu eta Zarautza itzultzeko, bazkaltzeko lekua han genuelako, eta, ezaguna, iazkoa bera baitzen. Espero genuen bezala oso dotore eman ziguten bazkaria, behar bada mantso samar, baina ez geneukan presarik. Arratsaldean beta izan genuen Zarautzen barna ibiltzeko, giro ederra baitzegoen. Ilogailua, dendak, ostatuak eta

hondartzako terrazak ikusi genituen etxera ekarriko ziguten autobusak hartu aurretik. Lagun artean ongi egoteak hurrengoaren pentsaeran uzten gaituela nabaritu genuen.

Irailerako, Ezkio-Itsasora egin dugu txangoa, han dagoen Igartubeiti baserri-museoa ikustera. Horren inguruan joanen da urriko gure kronika. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



**Denok Bat  
Jubilatu  
Elkartea**



Dastatzeko antxoia eta atun bikainak ▲

# Zorionak Zorionak!



Zoriondu zure laguna  
Pulunpen!  
[pulunpe@gmail.com](mailto:pulunpe@gmail.com)



## Utzamako elkarguneak jarraituko du

Urriaren 1ean jarriko da berriz ere martxan. Ekimena joan zen urtean sortu zen: hiru urte arteko umeek, bereziki eguraldi txarrarekin, beste umeekin egoteko eta jolasteko toki bat izateko helburuarekin. Aurten ere, asteartean izanen da 16:30etatik 19:00ak bitartean. Bultzatzaileek esan digutenez oso giro ona egon zen eta familiak oso gustura egon zirelako erabaki dute elkargunea mantentzea. Izena emateko eta baldintzak eta egutegia jakiteko, idatzi [ayuntamiento@ultzama.es](mailto:ayuntamiento@ultzama.es) helbidera.



## Berueteko aizkolariari omenaldia

Abuztuaren 2an, Berueteko herriak, Jose Juan Barberena Etxarri aizkolari handia izandakoari omenaldia egin zion. Herriak, egun horretan, oroigarri bezala, plaka bat eskaini zion, eta bertan grabaturik honako aipu hau du:

Berueteko kontzejuaren partez, herriko aizkolaririk hoberenarentzako

Eta eskaintza borobiltzeko, Julio Soto bertsolariak bi bertso bota zizkion. Hemen duzue bigarrena, Jose Juanen profesionaltasuna ezin hobeki azaltzen duena:

Lagunarteko desafioak  
Izan ziren bat edo bi,  
Gero serio ekin zenion  
Gauzak zail jarritz askori.  
Hiru txapelak jantzi zenitun  
Pentsatu ze kategori!  
Beti zurea eman duzu deus  
Kendu gabean inori,  
Eta aitortu nahi dizuguna  
Da ahalegin zintzo hori (bis)

Herriak egun horretan, eta lehen aldiz, aspaldian eraiki zuen pilotaleku ederrera, pilota profesionala ekarri zuen. Honako hauek izan ziren partidak:

Egiguren V-Gaskue, De la Fuente-Aldaben kontra  
Eta

Ezkurdia-Albisu, -Zabala-Imazen kontra.

Bi partiden artean egin zitzaion omenaldia Barberenari.

Gure aldetik zorionak Jose Juan, eta urte azkoz!!!!

Oharra: Audioa entzun nahi duenak, hor izanen du **amezti.eus** orrian.





## Carlota Ziganda, 49.a Parisko Joku Olinpikoetan

+3ko txartelarekin amaitu zuen laugarren eta azken jardunaldia eta, osotara, +13ko txartela aurkeztuta, 49.a izan da sailkapen orokorrean, taularen azkeneko postuetan.

Carlota Ziganda ultzamarra hirugarren aldiz izan da Joku Olinpikoetan. Abuztuaren 11n bukatu ziren Parisko 2024 joku hauetan, 49.a izan da emakumezkoen golf txapelketan. Bederatzi jokalaririk bakarrik utzi ditu atzean, eta, beraz, sailkapenean azkeneko postuetan gelditu da. Hainbat txapelketatan onenekin lehiatzeko gai dela erakutsi duen arren, Parisen ez du bere jokorik hoberena azaldu.

Espainiako taldean kide zuen Azahara Muñoz Malagako golflariak 13.a amaitu du txapelketan, -3ko txartelarekin. Urrezko domina Lydia Ko zeelandaberritarak irabazi du; Esther Henseleit alemaniarrek zilarrezkoa eta Xiyu Lin txinatarrak brontzezkoa.



**Carrefour**  
*express*

*Zugandik gertuago*

**¡Zure zain  
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8  
31867 Aroztegi - Atezko Ibarra  
IZARPE KANPINA

**ASTELEHENETIK OSTIRALERA**

**9'00 - 20'00**

**LARUNBATA ETA IGANDEA**

**9'00-14'00 / 16'00 -20'00**



## Boni Astitz Urritzari, bertso batzuk

Martin Azpirotz Aldaregiak, Etxalekuko **Ramonen etxeko** semeak bidali dizkigu hil berri den **Marimigeleneko** Boni Astitz Urritzari gorazarrez egindako bertso batzuk. Entzun nahi badituzue, Amezti.eus-en dituzue zintzilikatuak Martinen ahotsean

### Boni Astitz Urritzaren oroimenean (2024/08/06an hila)

Milla bederatziun ta  
Hogeitemezortzian,  
MAIMILENEan jaio  
Astitz familian;  
Bere etxean lana  
Baita urrutian,  
Mundu asko ibili  
Bai bere bizian (bis)

Bizi atera naiez,  
Hori bere asmoa,  
Inglesik jakin gabe  
Amerikanoa;  
Mutilla ona bai zen.  
Gañera sana,  
Edozein lanetako  
Balio ta gogo. (bis)

Iruñan urte askoz  
Hor negoziua,  
Lanean zur jokatz  
Diru soluzioa;  
Lagunak eta juerga  
Konbertsazioa,  
Etxeko guztiari  
Be debozioa (bis)

Ezagun guztientzat  
Ze oroitzapenak!  
Esateko moduak  
Izan dire onenak.  
Harrek kontuak beñe  
Ez ziren ez penak,  
Ezagun eta lagun  
Maite zitun denak! (bis)

Kanpotik dotorea  
Barnetiken guapo,  
Denen laguna izanez  
Joan da betirako;  
Hona hemen agurra  
Bere illobentzako  
Bertso ttiki samarrak  
Pertsona haundintzako (bis)

Hil berri den Boni  
Astitz Urritzari  
Martin Azpirotzek  
egindako bertsoak,  
Azpirotzen  
ahotsean





## *Pulunpeko zozketan musutruk parte hartzen duten ostatueta batzuk*

Eskualdeko hainbat ostatuk saria eskaintzen dute, doan, Pulunpeko Zozketa Mundialean. Gure hedabideendako laguntza polita izaten da hori. Aurreko alean batzuk aurkeztu genizkizuen, hemen dituzue gainontzekoak.

### **Lanzko Ostatua**

Santa Cruz, 31, 31798, Lantz  
948 30 70 12  
[instagram.com/la\\_posada\\_lanz/](https://www.instagram.com/la_posada_lanz/)



### **Aitona Jatetxea**

San Lorenzo, z/g, 31799 Gerendiain  
948 30 54 11 - 669 39 62 01  
[restaurantesidreriaaitona.com](http://restaurantesidreriaaitona.com)



### **Aizarozko Ostatua**

Igoabide, 9, 31866 Aizarotz  
625 82 54 13



### **Larraitzarko Ostatua**

San Pedro 27, (31797) Larraitzar  
948 30 50 77  
[larraitzarostatu.com](http://larraitzarostatu.com)



### **Jauntsarasko Apeztegi berri denda-taberna**

Asunción, 1, 31866 Jauntsarats  
948 50 31 03  
[instagram.com/appeztegi berri/](https://www.instagram.com/appeztegi berri/)



### **Udabeko Benta**

Bentalde, z/g 31869 Udabe  
682 114 982  
[venta udabe.com](http://venta udabe.com)



## ***Teresa Zabalza: “Musikarekin berriz konektatzeko aukera eman dit bailarak azken urteetan”***

16 urte inguru daramatza Teresa Zabalza jazz irakasleak eta musikariak Zarrantzen, Imotzen. Eskualdean oso gustura bizi da hasieratik, eta inguruarekin harreman ederrak egiteaz gain, azken urteetan Zarrantzen bueltan sortu den jazz musikaren burbuila beretzat opari eder bat izan dela dio. Pianoa jotzen du Zabalzak.

### **Noiz eta nola iritsi zinen musikaren mundura?**

Nire aita musikaria zen, beraz, zaletasuna etxetik datorkit. Aita *lruñako* talde mitikoan aritzen zen, nahiko ezagunak edo esanguratsuak ziren bere garaian, 60. hamarkadaren bueltan. Dudua taldea zen, Ameriketara eta beste toki askotan ibili ziren birak egiten. Aita izan zen 'A Sanfermin pedimos' kantua egilea, adibidez. Eta, taldearekin bukatutakoan, gitarra klaseak ematen zituen Kale Nagusian, eta handik mundu guztia pasatzen zen! Taldeak, musikariak... beraz, bai, beti egon naiz musikaz inguratua.

### **Ikasketei dagokienez, zer egin zenuen?**

Senide guztiak pasa ginen txikitan kontserbatoriotik, nik klasikoko goi mailako ikasketak egin nituen. Baina, horretan ari nintzenean, jazz-erako interesa piztu zitzaidan, eta lruñean klasikoko ikasketak egin bitartean, Donostiako eskola pribatu batera ere joaten nintzen, han hasi nintzen jazz klaseekin. Goi mailako ikasketak hemen bukatutakoan, Bartzelonara joan nintzen. Orain hemen badago jazz lizentziatura, titulazioa, baina nire garaian hori ez zen existitzen. Beraz, 1994an edo 95ean, ez nago ziur noiz, baina 24 urte inguru nituela, Bartzelonara joan nintzen.

“ Zortzi eta hamar laguneko talde txikiak izaten ditut kontserbatorioan, gertuko harremana dugu ”

### **Eta, zerekin egin zenuen topo Bartzelonan?**

Taller de Musics izeneko eskola pribatura joan nintzen han. Garaian, mundu guztiak esaten zidan jazz-arekin zerbait egin nahi banuen Bartzelonara joan beharra nuela bai ala bai. Hasiera batean, urtebeterako joan nintzen, aurreztuta neukan diruarekin, baina zortea izan nuen, eskola hartan tituludun irakasleak behar zituztelako. Jazz musikari handiak zituzten, baina tituludunak falta. Horrela, nik ikasketak nituen bezala, ikasle izateaz gain irakasle lanetan aritzea ere proposatu zidaten. Solfeoa, musika lengoia eta horrelako ikasgaiak ematen hasi nintzen. Egia esan, Bartzelonan, bere zentzu zorrotzean ikasi-ikasi baino, jende askorekin jotzen nuen, egunero gindoazen kontzertuetara, jam sesioetara... irakasle onak



Zarrantzen bizi da duela 16 urtetik Teresa Zabalza ▲



nituen, baina, esanen nuke, gehiago dela han bizitzen duzuna, giroa bera, egun osoan jazzari konektatua egotea. Urte beterako joan, baina, azkenean, zortzi urte gelditu nintzen han (barreak).

### **Gustura zeunden seinale... orduan, zerk ekarri zintuen bueltan Nafarroara?**

Tira, gauza desberdinak elkartu ziren momentu batean. Batetik, eskola pribatua izanda, lan baldintzak-eta nahiko prekarioak ziren, eta, bestetik, justu Iruñean jazz-eko goi ikasketak jarri zituzten martxan. Harrigarria da hori, Iruñeak jazz-eko goi ikasketen eskaintza izatea! Ez dakit nola gertatu zen, baina, hori martxan jarri zutenean, hemen lanean hasi koa izan da nire osatutako orkestra. Kontserbatorioa nire arloan... eta etortzea erabaki nuen. 2002an izan zen hori.

Eta, geroztik hortxe segitzen dut lanean. Hasieran, klasikoko irakasle izan nintzen, baina gerora jazz-eko departamenduan sartu nintzen, klase teorikoak emateko: jazz armonia, jazz-aren analisia, musika-konposizioa eta horrelakoak ematen ditut. Nire saltsan nago, ohartu naiz nire pasioa dela irakaskuntza.

### **Nolakoa da kontserbatorioko lana, nolakoak ikasleekin harremanak?**

Unibertsitate publikoaren modukoa da kontserbatorioa, guztiz publikoa, ikasleek sarbide proba egin beharra dute... hango egunerokoak unibertsitatearekin komunean du ikasleak helduak direla, 18 urtetik gorakoak, baina hori baino askoz jende helduagoa ere badago. Nire adintsuko ikasle asko izan ditut nik, lagun izaten amaitu dugunak. Izan ere,

askotan, lehenagotik musikaria den jendea ere etortzen da, titulua behar dutelako. Uste dut, leku horretatik ikasleekin harremanak askoz errazagoak direla. Gainera, oso polita da, talde txikiak izaten direlako kontserbatoriokoak: nik 8 edo 10 laguneko taldeak izaten ditut.

### **Kontserbatorioari lotutako aurreiritziak ere egon ohi dira, oso zorrotza dela entzuten da askotan...**

Agian, klasikoarekin lotuta dago batez ere aurreiritzi hori? Irakasle zorrotzen ideia hori... ez da horrela izaten beti, denetik dago kontserbatorioan ere, ezin da orokortu. Jazz-ean ere, klasikoan bezala, badira irakasle oso zorrotzak, baina beste batzuk oso malguak dira... bai, denetik dago, eta hori ere aldatzen ari dela esanen nuke.

### **Klasikoa ere egin zenuen, baina, benetan zurea, jazz-a izan da, ezta? Zergatik?**

Ez dakit oso ongi esaten. Ni ere, jende gehiena bezala, klasikotik nentorren, eta klasikoa zoragarria da, ez da inoiz bukatzen... baina, gazte garaian, musika modernoarekin lotuagoak egon ohi gara, eta musika modernoa diodanean ez naiz halabeharrez jazz-azari, rock-azari, pop-az... ni, adibidez, oso pop zalea nintzen. Azkenean, libreago begiratzeko modu bat da. Mendelson jotzea ikaragarria da, baina, momentu batean, agian, beste zerbaiterako gogo duzu, bateria batekin jotzea, gitarrarekin... tira, nire kasuan, anaia izan zen jazz musikaz kutsatu ninduen. Berak musika hori entzuten zuen, jendearekin jotzen zuen, eta hortik iritsi nintzen ni mundu honetara.



Teresa Zabalza quintet ▲

## **Jazzerako zaletasun orokorturik ez dago gure jendartean, dena dela...**

Bai, agian badago eskuraezina edo ulertzeko zaila den sentrazioa? Egia da, normalean ez dagoela edonoren eskura jazz-a, bilatu egin beharra duzu. Jazzaldia eta horrelako jaialdiak badira inguruan, baina, gero, benetan, Donostiako edo Gasteizko jendeak esaten du festibal horiek askotan kanpora begirakoak direla. Urte osoan, Donostian, ez dago apenas jazz-ik.

## **Areto txikietatik mugitzea zailagoa da, agian?**

Bai, askotan horietan zailtasunak izaten dituzte ordaintzeko ere, ez da erraza izaten. Baina bai, berez, jazz-aren habitata klubak dira, areto txikiak. Niri sekulako pereza ematen dit Jazzaldian auditorio erraldoietara joatea, dirutza balio duten kontzertuetara. Baina beste zirkuitu horiek topatzea zaila da, beti gabiltza borroka horretan...

## **Irakaskuntzan ari zarela kontatu diguzu, baina zuzeneko emanaldietan piano-jotzaile ere aritzen zara, ezta?**

Tira, gehiegi ere ez, baina azken aldian atera dira kontzertu batzuk, bai. Dena dela, ez nuke esanen aktiboan nagoenik ere. Baina, bestalde, egia da, azken aldian bizitzak zuzeneko musikara berriro eraman nauela, nolabait. Magia momentu bat egon da Zarrantzen, musikariak etorri dira bizitzera, jazz egiten dutenak, elkarrekin musika egiten hasi gara... eta, kantari portugaldar batekin ere ari naiz kontzertuetan, Madalena D'Oliveira Martinsekin. MOM da bere proiektuaren izena. Ez da bilatutako zerbait izan, baina

azken aldian gauza interesgarriak sortu dira. Esanen nuke, niretzat gaur egun garrantzitsuena gustura egotea dela, gustura nagoen jendearekin jotzea... nolabait, bailarekin oso konektatua nago azken aldian, eta kuriozoso da, bailara honek berriaz konektatu nauela musikarekin! Polita izan da.

## **Imotzi eskertu beharrean zaude, beraz?**

Bai, bai, ikaragarri gustura nago hemen. Bartzelonako urteen ondoren, hirian hainbeste urtez bizi eta gero, herrira mugitzeko gogoz etorri nintzen. Aitzoainen izan nintzen hasieran, gero Zabaltzetan... baina, toki finko baten bila, inguru honetara iritsi nintzen, Zarrantzko etxe hau libratu zen, eta erosteko aukera suertatu zen. Tokiarekin segituan maitemindu nintzen,

“ **Magia momentu bat egon da Zarrantzen: jazz musikariak etorri dira bizitzera, elkarrekin musika egiten hasi gara...** ”

eta horrela etorri nintzen, 16 urte beranduago hemen segitzen dut, eta denak dio hemen geldituko naizela... oso ongi hartu naute bailaran, Zarrantz eta Eraso artean, bailaran bizi handia dago, eta herritarren artean giro ona.



Omen kolektiboarekin parte hartu zuen Zabalzak Esan Erranen 25. urteurrean





**deceuninck**



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m<sup>2</sup>k) **0,85**



**JASANGARRIAK ETA EFIZIENTEAK**



**ENERGIA AURREZTEA**



**SEGURTASUNA ETA  
SENDOTASUNA**



**ERABATEKO ISOLAMENDUA**



Monte Perdido mendiaren tontorrean. Xabi, Ander, Jon, Aimar eta Iñaki



Beuntzako bestetako mus txapelketako irabazleak, Maria Angeles Oyarzun eta Maria Jesus Arostegui



Iraizozko haurrak Oianbarrenen freskatzen



Larrazarko gazteak pestetan



Helduen jolasak Gerendiaingo jaietan



Oskozko pestetan, partxisean



Pertseidak ikusteko elkartu ziren Itsason 12 bat lagun



Ultzamaldeko herri kirol taldea herriz herriko txapelketan.Uztailaren 20an, Beran



# Etxebizitza

## Babes Ofizialeko Etxebizitzak egin nahi dituzte Ostitzen, kooperatiba bidez

Babes Ofizialeko zortzi etxebizitza sortu nahi ditu Odieta Udalak Ostitzen, eta, kooperatibaren eredia bultzatu nahi dute eraikuntzarako. Bi eta hiru gelako etxebizitzak dira aurreikusi dituztenak, trasteleku eta garajearekin. Proiektua guztiz moldagarria litzateke, dena den. Lehen deialdia Odieta egin eta gero, eskualdera zabaldu nahi izan dute egitasmoa

2020. inguruan hasi ziren Ostizko lursail batean babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko ideiarekin bueltaka Udalean. Lursailaren %70 inguru udalaren eskuetan zegoen, baina gainontzeko zatia erosi egin dute, zortzi etxebizitzak eraikitzeko ez zelako nahikoa hasierako zatia. "Hasieratik argi genuen babes ofizialeko etxebizitzak zirela


bultzatu nahi genituenak", azaldu du Alberto Urdaniz alkateak.

Behin lurra eskuratuta, aukera desberdinak ditu udalak etxebizitzak eraikuntza bultzatzeko. Udala bera izatea sustatzailea litzateke aukera bat, Urdanizek dioenez, segituan baztertu zutena. "Guk ez dugu


horrelako proiektu bat garatzeko gaitasunik ere", dio. Bigarren aukera, babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko dituen enpresa edo proiektu bati lurra saltzea litzateke. "Promotore bat izan liteke aukera bat, baina, gure kasuan, nahiago dugu kooperatiba baten esku uztea".



BEHEA LORATEGIAREKIN  
3 logela  
205.000 €\*



LEHEN SOLAIRUA edo ATIKOA BALKOIAREKIN  
3 logela  
199.000 €\*



LEHEN SOLAIRUA edo ATIKOA BALKOIAREKIN  
2 logela  
168.000 €\*



\* BEZa gabeleko gutxi gorabeherako prezioak.



## Etxebizitzak kooperatibak

## eraikitzeko

Nola funtzionatuko luke udalak bultzatu nahi duen formula horrek? Bada, udalak lursaila kooperatibari salduko lioke, eta kooperatiba hori izanen litzateke gero eraikuntzaz eta beste faseez arduratuko litzatekeena, inongo sustatzailerik tartean egon gabe. "Familia bakarreko etxebizitza baten sustatzaile izan daiteke pertsona bat, bada, kasu honetan, zortzi lirateke sustatzaileak", azaldu du. Kooperatiba lursaila erosteko eta etxebizitzak eraikitzeko sortuko litzateke, behin hori eginda, segi lezake funtzioaren bat izaten edo ez.

Zergatik bultzatu nahi du Odietako udalak kooperatibaren forma hori? Honela azaldu du alkateak. "Hasiera batean, nahiago genuke gure inguruko, eskualdeko jendea izatea etxebizitza hauek erosten dituenen. Kooperatibak horrelako oinarri batzuk zehazteko aukera ematen du. Ohiko enpresa sustatzaile batek hartuko balu, edonori salduko lioke". Gainera, kooperatiban eraikitzearekin, sustatzaileak izanen lituzkeen irabazien marjina hori kendu lezakete kooperatibako

kideek, edo, eraikuntza materialak hobetzea erabaki. "Etxebizitza kooperatibarena ez da ezer berria, aurreko hamarkadetan asko erabiltzen zen formula da", gogoratu du.

## Arkitektoarekin diseinatutako proposamena

Hutsetik abiatu beharrean, proposamen zehatzagoa zabaltzeko eta proiektua errazago ulertzeko, arkitekto batekin etxebizitzaren diseinu posiblea diseinatu du Udalak. Eraikin bakarra izanen litzateke, babes ofizialeko zortzi etxebizitzez osatua. Honakoak lirateke etxebizitzaren ezaugarriak, neurriak eta BEZik gabeko gutxi gorabeherako prezioak:

- Beheko solairuan, 80 metro karratuko bi etxebizitza, bakoitza zortzi metro karratuko lorategiarekin eta hiru logelarekin (205.000 euro + BEZ)
- Lehen solairuan, 80 metro karratuko hiru etxebizitza, 5 metro karratuko balkoiarekin eta hiru logelarekin (199.000 euro + BEZ)

## Arkitekto batekin etxebizitzaren diseinu posiblea egin du Udalak

- Bigarren solairuan, 63 metro karratuko hiru etxebizitza, 5 metro karratuko balkoiarekin eta bi logelekin (168.000 euro + BEZ)
- Beheko solairuan guztien trastelekuak eta garajeak joanen lirateke, eta baita denondako txokoa ere

Aurreko hori proposamen bat besterik ez da, dena dela, kooperatibako kideek beste modu batean diseinatu nahiko balute aukera izanen luketelako. Bestetik, alokairua baino gehiago, salmenta lehenetsi du udalak, biztanleak finkatzeko modu hobea dela uste dutelako. "Alokairuarekin aldakorragoa izaten da, jendea badator eta badoa... eta, bailaran jendea finkatzea nahi genuke", dio. Interesa duten herritarrek udalarekin harremanetan jarri behar dira [odieta@odieta.es](mailto:odieta@odieta.es) helbidera idatzita.

Behin taldetxo bat osatuta, bilera deituko lukete udaletik, kooperatiba osatzen lagundu, lursaila kooperatibari saldu, eta haien esku geldituko litzateke gero eraikuntza. 150.000 euro inguruan salduko lieke lursaila udalak. "Udalak ez du honetatik dirua irabaztea bilatzen, lehendik lursail osoa eskuratzeko egindako gastuak estaltzea da asmoa. Baina, irabazirik egonen balitz ere, diru hori Ostitzen bertan kirol instalazioa egiteko erabiliko litzateke", gehitu du.



▲ Zortzi etxebizitzako eraikina joango litzatekeen lursaila



## Ruben Ruizek irabazi du 2024ko Mikel Zarate Haur literatura saria

Ruben Ruizek idatzitako *Pellokeriak* ipuin-bildumak irabazi du 2024ko Mikel Zarate haur literatura saria. Liburua Elkar argitaletxeak kaleratuko du. *Pellokeriak* hainbat ipuin laburrez osaturiko kontakizuna da, denetan Pello izeneko mutikoa da protagonista. Ipuin horietan zehar hainbat gai azaltzen dira, hala nola eskola, familia, bullying-a, zahartzarua eta beste, eta denetan nabarmentzen dira umorea eta xamurtasuna.

Ruben Ruiz Gasteizen jaio zen 1973an. Bertan, Magisteritza ikasi zuen eta ondoren, psiko-pedagogia Donostian. 1998. urte inguruan, Nafarroan hasi zen lanean irakasle eta ordutik bertan bizi da. Aizarotz handitu zenetik han bizi da, duela 22 edo 23 urte ingurutik, alegia. Bereziki haur eta gazte literatura landu du. 2002. urte inguruan idatzi zuen bere lehenengo liburua, eta, ordutik hamar bat liburu idatzi ditu. Gazte eta heldu literatura liburu bat ere idatzi du, *Beti Mugan*, eta gainerakoak, haur literaturakoak.

### Noiz eta nola hasi zinen idazten?

Gasteizen bizi nintzela, gazte xamar nintzela oraindik, bertako literatura lehiaketa batzuetan aurkeztu nuen lan bat eta, zorionez, saritua izan nintzen. Horrek indarra eman zidan idazten jarraitzeko. Gero, Gasteizko beste literatura lehiaketa batzuetan ere bestelako sariak jaso nituen. Horrek idazteko grina hori indartu zidan eta, ondoren, idatzitako liburuak argitaletxeetara bidaltzeko pausoa eman nuen. Horretan, lagun batek lagundu

zidan, bera idazlea baita eta hainbat liburu baditu merkaturatuak. Lagun horri bidali nizkion nire hasierako testuak eta bere laguntzarekin liburuak plazaratzea lortu nuen. Esan dezagun, hortik aurrera, guztia errazagoa izan zela. Horrenbestez, jendea ezagutzeko aukera sortzen baitzizaidan, hau da, zuzenean harremanak egiteko aukera. Beraz, nire kasuan horrela izan zen, sariketen bidez eta nire lagunaren laguntzarekin.

### Aurtengo Mikel Zarate sariaren irabazlea zara. Nola sentitu zinen berria jaso zenuenean?

Illusio handiarekin jaso nuen albistea, eta poz handia eman zidan. Aurretik beste sari batzuk jaso ditut, Lizardi saria, adibidez, edota Euskadi saria, *Anekdotak* liburuarekin. Sari hauek jasotzerakoan ere asko poztu nintzen. Sariak, nolabait, bide onetik zoazen seinalea ematen dizute. Hala ere, irabazlea izan ez naizen beste hainbat lehiaketetan ere parte hartu dut, azkenean, bakarrik jasotzen du saria.

### Zer gai lantzen dira Pellokeriak liburuan?

21 kontakizun biltzen ditu liburuak, eta guztietan, haur baten xalotasuna eta xamurtasuna islatzen dira. Bestalde, gai arantzatsuak edo konplikatu xamarrek ere agertzen



Ruben Ruiz ▲



dira. Baina, betiere, irakurleak irri batekin irakurriko dituela pentsatzen dut. Izan ere, umoreak zati handi bat dauka kontakizun guztietan, eta gai batzuk latzak izan arren, umoreak ematen dio arintasun hori. Azkenean, bizitzan badira une gozoak eta ez hain gozoak, eta une horiek umorez hartzen baditugu, hobeki aurre egin ahal izango diogu etor daitekeen guztiari. Pellokeriak liburua osatzen duten kontakizun hauetan, eskola giroa azaltzen da, familia giroa, haurren arteko harremanak, bullying kasu bat eta zahartzaroa, besteak beste. Esaterako, aitona iktusa pairatuko du. Orduan, haur batek egoera horri nola aurre egin ahal dion azalduko da. Baina, betiere, irudimen handiarekin eta umorearekin.

### **Nolakoa izan zen aipatutako gai horien lanketa?**

Liburuak dokumentazio aldetik ez du lanik eskatu. Nire ustez, idazle

batek begiak eta belarriak oso zabalik izan behar ditu, handik eta hemendik entzuten denetik sortzen baitira kontakizun asko. Entzuten edota ikusten denetik. Esan dezagun, ernamuinean izan zitekeen gai bat edo ideia bat landu dut nik, ondoren, haur literaturara egokitu eta kutsu umoretsu hori garatu eta jorratu, literatura izan dadin eta ez ideia arrunt bat. Ideia batzuk niri bururatu zaizkit eta beste asko hemendik eta handik entzundakoak dira. Ideia horiek guztiak azalean tatuatu zitzaizkidan eta horrela atera ditut 21 kontakizun hauek.

### **Nola lantzen dira haurrekin aipatu dituzun gai latz horiek?**

Hemen dikotomia bat dago. Askoren ustez, literatura bere horretan geratu beharko litzateke: gozagarri izatea, testua irakurri ondoren, norberak bere ondorioak ateratzeko edo bere irakurketa egiteko. Baina, bestalde, irakurketa kolektiboak edo tertulia literarioak ere egin daitezke, eta horietan, landutakoaren inguruan hausnarketa kolektibo bat egiteko aukera sortzen da. Eta haur literaturari buruz ari garenean, hori bera gurasoekin eta irakasleekin egin liteke. Azkenean, norberak egin dezakeen irakurketa eta modu kolektiboan egin daitekeena ezberdina izango da beti. Nire ustez, irakurketa kolektiboa gehienetan aberasgarria izango da. Pellokeriak ipuin bildumarekin nire asmoa ez da izan testu pedagogiko bat egitea, testu literario bat baizik. Eta irakurtzerakoan

gozagarria izatea. Hala ere, arlo pedagogikorako edo hezkuntzarako erabili daitekeela uste dut, baina hasierako asmoa ez da hori izan.

### **Saria irabazteak atek ireki al dizkizu?**

Mikel Zarate sariketa ez da sariketa hutsa, hau da, argitalpena dakar berarekin. Elkar argitaletxeak plazaratuko du liburua urria edo azaroa aldean. Esaterako, horrelako sari bat irabazten duenaren izena komunikabideetan azaltzen hasten da; sari bat irabazteak ohiko bidetik liburu bat argitaratzeak baino oihartzun handiagoa du. Baina oso efimeroa da. Sari hau irabazteagatik inork ez ditu ziurtatuko beste lan bat argitaratuko dizutenik. Esan nahi dut, gustuko balukete bai, baina bestela ez. Azkenean, argitaletxeak ez dira inorekin ezkontzen eta haien irizpideak dituzte, horregatik, sari bat irabazteak ez du esan nahi hurrengo lanak ziurrak dituzunik inorekin.

### **Etorkizunerako zer aurreikuspen egiten dituzu?**

Nik ez dut modu konpultsiboan idazten; ideia bat etortzen zaidanean, horretara jartzen naiz. Adibidez, orain ez naiz idazten ari, ez baitut zer idatzi. Hau da, idazteko barruko behar hori atera didan ideiarik oraindik ez zait heldu. Ideiak baditut, baina ez naute guztiz konbentzitzen, horregatik orain ez naiz ezer idazten ari; eta idazteko denbora daukat, oporretan bainago; baina, esan bezala, orain ez nabil horretan. Bestelako libururik noizbait etorriko den? Bada, espero dut baietz. Ideia erakargarri bat etortzerakoan jarriko naiz berriz. Eta, hala ere, behin idatzita daukadanean, ikusi beharko da argitaletxeren bati gustatzen zaion eta plazaratzera ausartzen den.





### *Ilarregiarra hil zuten*

Aurrekoan, jendeak beren guraso edo aitatxi-amatxiei entzundako zenbait anekdota aipatu genituen, batez ere, heriotza zela eta gorpuaren bila egin ahaleginez. Anekdota fidagarriak gure ustez, elkarrizketatu ditugunak ongi ezagutzen ditugulako edo garai hartako egunkarietan idatzitakoak baieztatzen dutelako zenbait kontu. Gaur epaiketa edo judizioaz arituko gara

#### **Espanian kontuak gordinak ziren**

Espanian, aurreko urtean, 1923ko irailean, militarrek, hobeki esan, Miguel Primo de Rivera jeneral ahaltsuak, Estatu Kolpe bat eman zuen. Diktadura ezarri zuen Espainian eta politika atzekoz aurrera jarri zuen. Izugarritzko aldaketa izan zen.

Eta Diktadura honek hartu zituen neurrien artean, delituen sailkatze berri bat izan zen; eta horren arabera zenbait delitu Militarren Kodigoarekin epaituko ziren. Militarren Kodigoa aplikatuko

zitzaien, esate baterako, mortuan, zeraman dirua kentzeko norbait hiltzen zuenari. Eta hau zen, hain zuzen, goñitarrak egin zutena, Martin Aizkorberi dirua kentzeko toki desertuan eraso eta hil.

Krimen honen kontrako erantzuna "prozesu sumarisimoa" ezartzea izan zen, honek zekarren ondorio guziekin. Adibidez, berehala eginen zitzaien epaiketa. Edota, juezak militarrek izanen ziren.

Eta hala, judizioa irailaren 27rako jarri zuten (Oroit zaitez 22an ekarri zituztela Iruñera)

#### **Judizioa 5 egunen barnean.**

Lehenik, juzgatuko zituen Tribunalak eratu beharra zegoen. Dena, tarrapataka, antolatu zuten. Luis Agirre koronela jarri zuten tribunalaren buru eta beste sei kapitan, kide; hau da, denetara 7 lagunek eraturako tribunalak.

Bernardoren defendatzaile bat eta beste bi anaien beste bat, biak militarrek.

Eta euskaraz zekien militarrik ez, eta preso bat jarri zuten itzultze lanak egiteko: Joaquin Iruretagoiena.

#### **Judizio motza**

Epaiketa irailaren 27ko atsaldeko lauetan hasi zen. Bostetako jarririk zegoena ordu bat aurreratu zuten, egun berean bukatzeko, dirudienez.

Gertatuaren xehetasunen berri Bartolome Clares koronelak eman zuen.

Bi mediku militarrek autopsiaren emaitza azaldu zuten.

Eta Fiskalak, itzultzailearen bitartez, galdu zuten ea etxeren bazen heriotza eman zioten lekuan. -Ezetx.

Txostengileak, galdu zuten ea bide zabalean ziren edo xenda batean. -Xenda batean zela.



Primo de Rivera, jenerala eta diktadorea (1923-1930)





Burgosko Kapitaintzatik espres etorri zen fiskalak, zera adierazi zuen: *kriminalak ez dute deus aringarririk: ez zihoazen edanik, nahiz bezperan ardo edaten ari izan; heriotza eman zioten Aizkorberi dirua ostutzeko, besterik gabe. Eta gainera, elkar hartu, aurrez ederki pentsatu eta eremu bakartian eman ziotela heriotza.*

Hiruendako heriotza zigorra eskatu zuen, 5.000 pztako isuna eta herederoendako ordaina, eta azkenik, Aizkorberekin zuten zorra kitatzea.

Antonio Villava kapitainak egin zuen bi anaia gazteenentzat defentsa. Ahal zuen guzia arindu nahi izan zuen egitatea, baina ez zuen erraza, Guardia zibilen aurrean oso azalpen zehatzak egin baitzituzten.

Bernardoren defentsa lanak Luis Huarte Kapitainak egin zituen eta galdetu zion, 2 urteko haur baten aita izanik, ea bere andreak espero duen bigarrenaren aita den. Izugarritzko isiltasuna sortu zuen galderak eta Bernardok, hala edo hola, Martin Aizkorbe ote den iradoki du.

Erantzun honekin, badu lopidea defendatzaileak, maitasun pasioa azaltzen baita hemen eta ez ebaste kontua. Gainera, dio, justizia hobereana ez dela lasterka egiten dena...

Argudio hauetaz gain, judizioan aditzera eman zuten Aizkorbe eta goñitarren harremanak ez zirela onak. Ez ote? Jakina, zerbait aitzaki atera behar inondik ahalean dirua baino gehiago zegoela tartean azaltzeko. Ebastea ez zela tartean

zegoena. Gainera, beren arrebaren senargaia zen Martin Aizkorbe, koinatu beharra, alegia.

Ez, egia esateko, defentsa zaila zuen krimen hark. Zailagoa oraindik goñitarrek!

Zazpiak eta erdietan bukatutzat eman zuen judizioa Tribunaleko Presidentek. Jendeak hustu zuen sala eta tribunala gelditu zen prozesuaz eztabaidatu eta erabakitzeko. Ordu baten buruan epaia: BIZI GUZIKO KARTZELA ZIGORRA.



## Txurdan

### Hiztegia

**Ahalsua:** poderoso

**Ezarri:** implantar, establecer

**Sailkatze** (sailkatu) clasificar

**Epaitu:** Juzgar

**Militar Kodigoa:** Código militar

**Mortua:** desierto

**Hain zuzen:** precisamente

**Antolatu:** organizar

**Itzuli** (itzultze lanak): traducir, trabajos de traducción

**Txontengilea:** ponente (dokumentua idatzi duena)

**Aringarrria:** atenuante. Delitu bat arinagoa bihurtzen duen gauzaren bat (mozkorturik egotea, adibidez)

**Eremu bakartia:** sitio solitario

**Egitatea:** hecho

**Iradoi:** azaltzea eman. Sugerir.

**Lopidea:** agarradero

**Argudioa:** arrazoia. Argumento



▲ Iruñeko kartzela 1907-2010



# Torturarik

*izan zen?*

## Bai, beti bezala, jakina!

Kontatu dugu nola Eulogio Ortigosa Eraso, juzgado idazkari zaharra izan zen zer gertatu zen eta nor ziren hiltzaileak asmatu zuena. Hala ere egunkariak Lekunberriko kaboa jo zuten gertatutakoaren iragarle: estamos ante un crimen. Deus jakin ez eta zapla, bota zuen! Hori bai, ordurako Don Eulogiok pasatua zion den-dena.

Hurrengo egunetan, egunkariak ere goraiatu eta laudatu zuten guardia zibila eta batez ere kaboa, Ildefonso Saez. Eta Larraun eta Basaburuko alkateak kaboaren aldeko saria eskatzen. Omen.

Orain hamabost bat urte Dionisio Ruiz erredentoristak idatzitako historian ere ongi laudatzen da kaboa, honela baitio: De entrada, naturalmente, negaron todo lo habido y por haber. La cerrada negación inicial fue debilitándose poco a poco ante la extraordinaria sagacidad policial del cabo Ildefonso Saez (Kaboaren esku ezkerria eta inteligentzia laudatzen ditu Dionisiok)

Guardia Zibilen historiaz den gutxiena ere ez ote dakigu? Dirudenez Dionisio Ruiz Goñi erredentoristak ez. Esku ezkerria eta inteligentzia, alajainkoa!

Guk aztertu dugunaren arabera, kontua ez zen horrela, inola ere. Hara zer kontatu zigun Jose Luis Navarro zenak orain urte gutxi:

Yokan-eta ibillu izain zittuten guardiek, bistekoa da. Aiek ez deklaritzen eta, azkenian...

Beste hiru lagunek honako azalpen hauek eman zizkidaten:

-Bai, bai, yotzen omen zittiteken, ematen omen zapaztakon batzuk deklaratuazi nai.

-Bateaman omen ziten Lekunberri eta Lekunberri guzin barna ibilli men'ziten karriken. Hiruek lotuta (sic)

-Barrantzeko borda ondoan: Esan omen zioen guardizibilek -tiro'at o

beste airia tiatzen omen zittoteken, ikaatziatik- ta ez balen bazen zuzen yoaten hil zuten lekuee, bere hartan hillen zittutela ta...

Dena dela, honi guziari bukaera eta gailurra emateko, hara, kasualitatez, lehengo egun batez Etxalekun kontatu zidatena, Berueteke Herrikoetxean ikusitakoaz, jendearen bistatik at:

Juanito Elizabeitia Alegre zena, Etxalekuko Miltxoneko muttikoa, Berueteke Arregiko bordan izaki mutil eta -mutikoak hola baittuk zerpatt gertatzen delarik, han biar-eta haiek Herrikotxan, eta zirrikitu batetik beire, eta lapurrei beso'at maiei lotu eta bestia goitti eta lizar makillekin jotzen ben'tzittiten (libre zuten saihetsean, jakina, ongi eroso)

Nire aurrean banu Juanito, orduan hamar urte zituen mutikoa, zera galdetuko nioke: Juanito, ze lizar makil klasiakin? Lizar makil zimelakin o lizar makil berdiakin?

Seguru nago erantzunen zuela zuzen demonio! Gure ama zenak horrela esanen luke: mutiko zar hok, dena jakin biar baitute! Hala ziren mutikoak, beti zokomiran eta zaharragoei zer entzunen zieten erne. Esana den bezala, beharrak, begiak erne!


Lizar makila zen kaboaren inteligentzia guzia! Tortura. Hala ere gure denboran tortura maisuak ezagutu izan ditugu Ildefonso baino hamar aldiz kriminalagoak!!!!

(Bateren batendako, badaezpada: tortura krimena da)



Hemen torturatu zituzten ▲





## Espainia ez ttikiagoa

Udan berri handirik ez omen da izaten. Hala diote kazetariak, baina aurten behintzat ez dugu horrelako udarik izan: Amnistia dela, Sanchez presidentearen andrearen auzia dela edo Kataluniako President-aren aukeratzea, politika kontuez aserik gaude. Eta zer esan kirolez? Eurokopaz edo Frantzia HANDIA-k antolatu dituen Olinpiadez? Bakarren batzuk nazkaturik ere bai.

Parisko Olinpiadetako inaugurazio arranditsuaren egunean eta Sena ugaldean barrena barkuz parte hartu zuten nazioetako kirolarien prozesio aspergarria izan zen ekitaldietako bat. Ez dakit badakizuen, baina halako batean Aljeriako taldeak loreak bota zituen uretara. Zer dela eta? Ba, Frantzia HANDIKO poliziak, 1961eko urriaren 17an aljeriar talde batek Parisen egin zuen manifestazio batean, 200 eta 400 lagun artean tiroz hil zituen. Sarraski hau ortzirik egon da urte luzeez, 1990a artio gutxienez. Isildu eta gorde ahal izan ez zutena, gainerakoa gezurrez estali. Hori egin zuen Frantzia HANDIAK. Hori da Frantzia HANDIA. Ez dezagun atzendu azkeneko 250 urtean izan den Estatu genozidarik handienetako bat dela.

Olinpiadetan beren HANDITASUNA eta beste bertute batzuk aireratu zituzten, esate baterako ANIZTASUNA. Frantziaren aniztasuna euskaraz edo korsikraz eskolak ematea bazterturik, gaitzetsirik eta debekaturik dagoenean? Aniztasuna bertako hizkuntza guziak hil hurren dituenen? 1789ko Iraultza jakobino hark ekarri zuen Aniztasuna? Edo heriotza?

Eta Olinpiada hauetan Iparraldeko euskaldun askotxo loriaturik Frantzia HANDIKO su artifizialez eta arrandikeriaz. Benetan kolonizatuak gaude.

Frantzia HANDI eta genozidaz harro daude Iparraldeko kolonizatu anitz. Eta Espainiaren mendean gaudenok? Nafarroan?

Azken urteetan bezala aurten ere, Tuterako festetan gazte talde handi bat hor atera zaigu zezenketatik oihuka, PUTA EUSKAL HERRIA, PUTA PAMPLONA-TUDELA CAPITAL eta A POR ELLOS, A POR ELLOS, A POR ELLOS!

Eta Cara al Sol kantari, baina hori da gutxiena.

Nafarroan, 1936an, frontierik izan ez zenean, 3.500 lagun atxilotu eta fusilatu zituzten. Horren espaz ote dira *Put a Euskal Herria* oihu egin zuten horiek? Eta *A por ellos! A por ellos!* kantatzen zuten horiek?

Eta *Cara al Sol* kantari; baina niregatik *Marsellesa* kantu izan balute ere berdin zait. Hori da gutxiena, azaldu zuten gorrotoa zait inportantea. Eta gaitz-erdi, gorrotoa oihuka bada agerian da, baina abarrots handirik gabe, Nafar Gobernutik, errukirik gabe hartzen diren erabaki baztergarri eta hilgarriez zer? Orain berean Oibarren (Aibar) 10 haur apuntatu dira eskolarako eta Eskolan tokirik ez ematea erabaki du Nafar Gobernuak. Zergatik? Hamar haur horien gurasoek euskaraz eskolatzea nahi izan dutelakoz.

*Cara al Sol*, *Internazionala* edo *Marsellesa* kantatu, guretako ez Espainian eta ez Frantzian, ez dago tokirik. Beren kolonialismoaren azpian nahi gaituzte. Eta ahal duguna

egiten ari gara kolonialismoaren kontra. Batzuk bederen!

Ardo frexkoaz gozatu dut aurtengo udan, eta ez Oiartzabalen gol espainolarekin eta gutxiago Frantzia HANDIaren harrokeriekin.



### Txurdan

- **Hiztegia**
- Frantzia HANDIA. Uste handikoa izan da Frantzia. Horrengatik HANDIA hori. Jakina, bi esanahiekin ibiltzen da.
- **Arranditsua:** ostentoso
- **Sarraskia:** matanza, carnicería
- **Ortzi:** ocultar (hemen ere ibiltzen den hitza da)
- **Genozidioa:** ekintza kriminala, zeinaren bidez herri baten suntsitzea eta hiltzea opatzen den.
- **Aniztasuna:** diversidad, pluralidad.
- **Hurren:** próximo.
- **Jakobinoa:** estatu bortitz eta zentralistaren aldekoa.
- **Loriatua:** entusiasmo.
- **Arrandikeria:** fanfarroneria.
- **Espa:** ansia (nahi bizia) Hemengoa ere bada hitz hau.
- **Gaitz-erdi:** menos mal. Hemengoa ere bada hitz hau.
- **Abarrotsa:** zalaparta (Hemengoa ere bada hitz hau)



# Muskizko BTTa

## Itzuli da Muskizko BTT lasterketa

Aurten berreskuratu da Muskizko BTT lasterketa, eta, Iturrats mendi bizikleta taldea izan da lasterketa berreskuratzearen arduraduna. Bereziki umeengatik erabaki zuten berriro lasterketa egitea, umeak bizikletan ikustea oso polita baita. Aritz Astiz Beloki antolatzailearekin bildu gara.

Lasterketaren balorazioa oso positiboa izan dela azaldu digu, eta, hain ongi ateratzeko, bizikleta taldeen, gurasoen nahiz herritarren boluntario lana ezinbestekoa izan zela azpimarratu du Astizek. Bestetik, Muskizko BTTaren izena Challenge Saltoki izan zen, Saltoki dendarengatik. Hiru lasterketek osatu zuten Challenge moduko txapelketa hau: lehendabizikoa Izkuen izan zen, bigarrena Oltzan eta hirugarrena Muskitzen. Azkenekoa izateagatik, Muskizko lasterketa bukatzerakoan banatu ziren sariak. Irabazleei kopak eta dominak banatu zitzaizkien.

Momentu berezia izan zela dio antolatzaileak.

### Noiz sortu zen Muskizko BTT lasterketa?

Aspaldi sortu zen Muskizko BTTa, eta urte luzez egin da. Nafarroako lasterketarik zaharrenetakoa da. Duela 25 urte egiten zela badakit, baina, gero antolatzeari utzi zitzaion. Azken aldia 2006. eta 2007. urteen inguruan izan zen. Garai hartan, San Martin egunean egin ohi zen, azaroaren 11n, herriko pestetan. Gerora, ordea, San Martinen aurreko asteburura aldatu zuten.

### Eta, gaur egun, nortzuk ari zarete Muskizko BTTaren antolaketan?

Orain, mendi bizikletan ibiltzen garen heldu nahiz ume koadrila bat gara, eta denak talde berdinean gaude, Iturrats mendi bizikleta taldean, alegia. Alberto Sarasa, taldeko kidea, eta biok izan gara lasterketaren berreskuratzea sustatu dugunok, bion artean prestatu eta garbitu ditugu bide guztiak. Eta, laguntzaile batzuk ere izan ditugu: nire bi semeak eta Albertoren hirurak, gurekin bizikletan ibiltzen direnak.

### Zergatik erabaki zenuten kirol-ekimena berreskuratzea?

Bereziki umeengatik erabaki genuen lasterketa berreskuratzea, baita bizikletan ibiltzen garenontzat ere oso berezia eta polita delako. Azken urte hauetan, mendi bizikleta taldeak antolatutako beste txapelketa bat izan da. Irurtzunen egiten zen hasieran, baina azken momentuan kokapena aldatu behar izan genuen. Momentu horretan sortu zitzaigun Muskizko BTTa berreskuratzeo ideia eta aukera. Proposamena Kontzejuari aurkeztu genionean, dirulaguntzak onartu zizkiguten. Ondoren, Udalera jo genuen, eta kirol batzordea, kirol-jarduera hau egitearekin eta ekonomikoki laguntzearekin ados azaldu zen. Izan ere, horrelako ekimenek gastu handiak eskatzen dituzte, adibidez, ambulantiak. Batez ere, jende



2024ko Muskizko BTTaren parte-hartzaile bat.



guztiaren laguntzari esker atera da aurrera ekimena, parte-hartzaileei, taldeko kideei, gurasoei eta, oro har, herriko jendeari esker.

### **Nolako bilakaera izan du urte hauetan zehar?**

Lehen, lasterketa oso simplea zen. Helduek bakarrik parte hartzen zuten. Jendeak bideak prestatzen zituen eta listo, anbulantzia bakarra egoten zen, eta ezer gutxi gehiago. Herriko elkarte oso zaharra zen eta dutxarrik ere ez zegoen parte-hartzaileentzako.

Aurten ordea, helduez gain, ume koxkorrek, hau da, zortzi urte ingurukoek ere parte hartu zuten. Zirkuitu ezberdinak ziren; hau da, mailaren arabera, bide ezberdinak prestatu ziren eta nahiz eta egun berean izan, ordutegi ezberdinak zituzten, bata bukatzen zenean hasten zen hurrengoa.

Egia esan, gaur egun Muskizko BTTa lehen egiten zenarengandik oso desberdina da. Elkarte berriua dago, parte-hartzaileentzako

dutxak jartzen dira, eta, orokorrean, zerbitzu gehiago dago. Adibidez, aurten etorri ziren mendi bizikleta taldeek, haien karpak jarri zituzten. Aurten, "zirko" moduko bat antolatu genuen. Zaleen aldetik ere aldatu da kontua: jendea ekimena ikustera etorri zen, esanen nuke 15 bat autokarabana hurbildu zirela. Hori bai, antolatzaile bezala, esanen dut lehen errazagoa zela guzti hau antolatzea.

### **Nolako izan da parte-hartzea?**

70-80 ume inguruk eta 60 bat helduk hartu zuten parte. Asteburu berean, beste mendi bizikleta lasterketa batzuk ere izan ziren Euskal Herrian, Gipuzkoako helduentzako txapelketa adibidez. Baina, gurean izandako parte-hartzearekin oso pozik gaude. Azkenean, Muskiz oso herri txikia da, eta besteak beste, herrian aparkatzeko leku nahikorik ez izateak kezkatzen gintuen. Aurreko egunetan, gainera, eguraldi txarra egin zuen eta beldur ginen, baina BTTaren egunean zortea izan genuen eguraldiarekin. Izan ere, beti gaude eguraldiaren mende.

### **Zein esango zenuke dela lasterketaren berezitasuna?**

Umeen parte-hartzearena esango nuke. Izan ere, umeei horrelako lehiaketetan parte hartzea asko gustatzen zaie. Nafarroan, esaterako, kirol ezberdinetako txapelketak egiten dira, eta irabazten duenak puntuak jasotzen ditu. Beraz, lortutako puntuen araberrako sailkapena egiten da, eta hori umeentzako oso dibertigarria da.

Bestalde, Muskiz bezalako herri txikietan ez da horrelako lasterketarik antolatzen, eta hori Muskizko BTTaren beste berezitasunetako bat dela esango

nuke. Lasterketa hauek, gehienbat, Lizarra inguruan egiten dira. Han zaletasun eta antolakuntza handia dago. Muskiz inguruko mendietan pagadiak daude, hezetasuna, lokatza, eta abar, eta horrek beste lasterketa batzuetatik bereizten gaitu. Hau da, lasterketa honen ingurunea ere berezia da, eta beste teknika bat erabili behar da. Besteekin alderatuta, antolakuntza maila antzekoa da. Lasterketa hauek zirkuitu bat dira, adinaren eta mailaren arabera moldatzen direnak, eta jendearen laguntza beharrezkoa izaten da.

### **Eta, hurrengo urteetara begira, zer?**

Tira, dena oso ongi atera zen eta ez zen istripurik egon. Herriko jende askok parte hartu zuen, eta orokorrean asko gustatu zitzaion. Baina, lasterketa hurrengo urtean berriro egin ahal izateko, Kontzejuan hitz egin beharko da lehenik. Azkenean, jendeari, lasterketarekin sortzen den "zirko" moduko hau gustatu baldin bazaio, aurrera jarraitzeko aukerak izanen dira. Kontzejuak lasterketarekin jarraitzea erabakiz gero, mendi



▲ 2024ko Muskizko BTTan parte-hartu duten umeak



▲ 1994ko Muskizko BTTaren kartela



## Aldizkariko eduki nabarmenduak eta Esan Erraneko dokumentala ikusgai

Pulunperen hilabeteko geldialdiaren ondoren, aldizkaria itzuli da. Baina, abuztuan, alerik argitaratu ez den arren, Amezti.eus webgunea aktibo egon da. Beraz, udan egin diren elkarrizketa eta erreportaje guztiak webgunean ikusgai dituzue. Udan zehar egon diren jarduerak eta irailetik aurrera datozenak eguneratzen jarraituko dugu, ezer gal ez dezazuen. Bestetik, Esan Erran irratiak ez da guztiz gelditu, Broma Gutxi programak eman dituen saioak aurkituko dituzue Amezti.eus-en. Eta, adi egon, izan ere, irailaren 16tik aurrera, berriro bueltan izango dugu Esan Erraneko Egundun Ero magazina.

### Alazne Fernandez de Muniaini elkarrizketa

Uztaileko Pulunpeko elkarrizketen artean, Alazne Fernandez de Muniaini egindakoa ikusgai daukagu Amezti.eus-en. Imozko euskara tradizionala nola aldatzen

ari den aztertu du berak, eta ikerketaren nondik norakoak kontatu dizkigu elkarrizketan. Izan ere, ahozkotasuna lantzea xede duen Euskaltzaindiako Mintzola egitasmoak, sei lan saritu zituen 2023an, tartean, erasoarrarena, 'Adinaren araberrako bariazio lexikoa Imozko hizkeran: inkesta linguistikoak' izenekoa.



Alazne Fernandez



### Dialeko Azkenak.

#### Esan Erranek, 25 urte

Esan Erran irratiak 25 urte bete ditu eta Bi ahizpak bideoko Aritz Gorostiagaren laguntzarekin haren ibilbideari erreposoa eman diogu Dialeko Azkenak dokumentalean. Orain, denon eskura jarri nahi izan dugu, beraz, Amezti.eus-en ikusgai duzue.

Dialeko Azkenak.  
Esan Erranek, 25 urte



### Lanzko meategia,

#### Mendebaldeko Pirinioetako garrantzitsuena

242. Pulunpeko Lanzko meategiaren inguruko erreportajea ere ikusgai dago webgunean. 80. hamarkadan itxi zuten, baina udalaren eta zenbait adituren lanari esker, ikerketa berriz abiatu da eta aurkikuntza harrigarriak egin dituzte azken lau urteetan. Erromatarren garaian meategi garrantzitsua izan zela jakina zen, eta, orain, hipotesia da brontze aroan ere erabili zutela, hau da,

duela 2.500 urte, gutxi gorabehera. Mendebaldeko Pirinioetako meategirik garrantzitsuena izan liteke. Udalaren laguntzarekin, bisita ederra egin genuen. Eta orain, aldizkarian egoteaz gain, Amezti.eus-en ere elkarrizketa osorik duzue.

Lanzko meategia



### Broma gutxi

Udan zehar Esan Erran irratiak Egundun Ero saioa atsedendian egon den arren, Tipule Menierek gidatutako Broma Gutxi irratsaioa ematen jarraitu dugu, beraz, bere azken saioak ere entzungai dituzue.

Ez ahaztu, Pulunpe aldizkariko ale guztiak irakurgai dituzue Amezti.eus-en, PDF formatuan. Eta, irailetik aurrera ere, hileroko ekimenen berri izanen duzue gure Agendan. Ez galdu!

Broma Gutxi 9. saioa



# KULTUR

**2024** ekainak 21 | irailak 28 | **UDAKO KULTUR PROGRAMAZIOA**

**IRA**



IGANDEA

**22**


12.00

**LIZASO-ORGI**

ANR Orgiko basoa

**JACK DIATTA & D.J. KAYLF**

Kasumaye



PROGRAMA  
COMPLETO  
CASTELLANO



EUSKARA  
PROGRAMA  
OSOA



### Ikasturte berri bat

Urtero bezala, udako atsedenaldiaren ondoren, liburutegian apalategi batzuk txukuntzeko eta liburu berriei lekua egiteko aprobetxatu dugu; eta irailean, Ostiral Kulturalei ekin diogu berriro, hainbat proposamenekin.

#### Ordutegia eta irakurle klubak

Bainahoriei buruz hitzegin aurretik, gure ordutegiak gogoratu nahi ditugu. Hilaren 13ra arte, udako ordutegia mantenduko dugu (10:30etik 13:30era) eta irailaren 16tik aurrera ohiko ordutegia berreskuratuko dugu (16:30etik 19:30era). Horrez gain, gogoratu nahi dugu ikasturte berriarekin irakurketa-klubak berreskuratuko ditugula, eta gaztelaniazkoa eta euskarazkoa irekita daudela sartu nahi dutenentzat. Hilero liburu bat irakurtzen dugu, Nafarroako liburutegien saretik lagatzen digutena (ez dira erosi behar), eta bilera lasai batean komentatzen dugu. Izena emateko liburutegia@ultzama.es helbidera mezu bat bidali besterik ez duzue egin behar.

#### Zurrumuruen atzean, pertsonak

Ostiral Kulturalei dagokionez, erakusketa-denboraldia egun puri-purian dagoen gai batekin inauguratuko dugu, uda honetako Mocejóngo krimena eta sare sozialetan zabalduko etorkinen aurkako buloak kontuan hartzen baditugu. "Zurrumuruen atzean, pertsonak" du izenburua erakusketak eta hau da ikusiko duguna: migratzaileei buruzko eta haien jatorriari buruzko funtsik gabeko zurrumuruek, estereotipo kaltegarriek eta

aurreiritziek eta haien hedapenak elkarbizitza larriki oztopatzen dutela jendarte honetan. Kohesioa murrizten duten intolerantzia, desberdintasuna eta diskriminazioa eragiten ditu. Gure zonaldean, gizarte osoan bezala, jatorri anitzetako lagunak bizi gara. Karrikan elkar ikusten dugu, baina askotan ez dugu elkar ezagutzen eta gure bizitzen inguruan ez dakigu deus ere. Modu abstraktuan taldeez ari garenean, pertsonak bidegabeki katalogatzeko arriskuan erortzen gara, eta, hala ere, haien bizitzetara hurbilduz gero, oso errealitate desberdina aurkitzen dugu, haiekiko enpatia senti dezakegu eta, pertsonak garen heinean, interes, nahi eta arazoak partekatzen ditugula egiaztatzen dugu. Argazki-erakusketa honetan, bizilagunek migratzaileen inguruko zurrumurru negatiboak deseraikitzen lagunduko digute euren irudiaren eta esperientzien bidez, baita lagun horiek egiten diguten ekarpena agerian jarritz ere. Gainera, datu objektiboek ahoz aho eta sare sozialetan zabaltzen diren gezur horiek zalantzan jartzen lagunduko digute. Erakusketa honek, Nafarroako Gobernuo Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren laguntza ekonomikoa jaso du.

#### Barazkien jaia

Gainerakoan, programazioari dagokionez, batez ere gazteei zuzendutako jarduera batzuk izango ditugu, hala nola, Ines Bengoak 4 urtetik gorako haurrei kontatuko dien **kamisibhaia**, non "Amaia eta Martin barazkien jaia" izeneko ipuina aurkeztuko digun. **Hilaren 20an izango da, 18:00etan**, Larraintzarko Bentan (Gizarte etxea). Eta zuzenean ikusi ezin duenak **Amaia eta Martin barazkien jaia** ere eraman dezake liburutegitik. Ipuin hau, Nafarroako Gobernuak argitaratua, Itziar Ancínek idatzia da eta Leire Urbeltzek ilustratua. Bertan, haurrak modu osasungarrian jatera animatzeko, gure lurraldeko produkturik zapoetsuenetako batzuk aurkeztu dira: piperrak, orburuak, zainzuriak eta beste barazki batzuk...







### Arrazismoaren aurkako rap tailerra

**Irailaren 27an**, 12 eta 14 urte bitarteko gazteentzako **rap tailerra** izango dugu, **Txus San Vicenteren** eskutik. Jardueraren helburua, nerabeek beren egunerokoan presente dagoen kulturartekotasunari buruzko sentsibilizazioa eta gogoeta egitea da. Betiere, giza eskubideen ikuspegitik. Helburu hori lortzeko eta ikasleek parte hartzeko, musika aitzakia gisa erabiltzen da. Kasu zehatz honetan, rap/trap musika erabili da. Musika-korrante horren bitartez irakaskuntzaren testuinguruan zuzenean

interpelatzea da helburua, egunero entzuten baitute, eta beren egunerokotasunaren parte aktiboa baita. Horrek potentzialtasun handiko tresna bihurtzen du genero hori. Azkenik, saioan sortzen diren gogoetekin eta eztabaidekin, gazteek, oinarri musikal bat aukeratu ondoren, abesti baten letra idatziko dute, ondoren gainerako parte-hartzaileekin batera rapeatzeko.

Tailerrak bi zati izango ditu:

- 1. zatia: migratzaileen testigantzak, pelikulak / dokumentalak / argazkiak ikustea, galderen bidez eztabaidatzea eta gertuko migrazio-

esperientziak partekatzea. Eta musika-oinarria hautatzea.

- 2. zatia: Abestiaren letra bikoteka edo taldeka idaztea, ondoren gainerako parte-hartzaileekin batera zuzenean rapeatzeko. Bi orduko saioa izango da, eta aurrez aldetik izena eman behar da email honetan: [liburutegia@ultzama.es](mailto:liburutegia@ultzama.es).



Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

# 2024ko ekaina

## 2024ko ekainean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

### Sortzeak:

Guk dakigula ez dugu jaiotakorik izan.

### Heriotzak:

#### Lantz

Fermina Irurita Zalba, **Pertixeneko** alaba, ekainaren 4an hil zen 79 urtetan.



▲ Fermina

### Ezkontzak:

Hemen bizi den inor ezkondu denik ez dakigu.

#### ULTZAMA Eltzaburu

Maria Pilar Gurbindo Larraiotz, **Matxineko** etxeoandrea, ekainaren 9an hil zen 97 urtetan.



▲ Maria Pilar, Matxenekoa

“Beti izanen zaituztegu gogoan.”

#### ULTZAMA Zenotz

Maria Carmen Eritze Saldias, **Arotzeneko** alaba, ekainaren 16an hil zen, 63 urtetan.



Maria Carmen ▶



# 2024ko uztaila

## 2024ko uztailean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

### Sortzeak:

#### ATETZ Egillor

Lucia Oiartzun Eguarats, Miguel Angel eta Soniaren alaba, uztailaren 24an sortu zen.

“ Aupa bat gure gurasoei! ”



▲ Lucia etorri zaigu. Ongi etorri

#### BASABURUA Orokieta

Ianire Balda Aguerrebere, uztailaren 26an sortua, **Apezetxean**, losu eta Maria Joseren alaba.

“ Beti izanen zaituztegu gogoan ”

### Ezkontzak

Oscar Eslava Zaragueta, Gartziriaingoa, Beuntzako **Petreneko** Mainer Eugi Subizarekin ezkondu zen uztailaren 27an. Iruñean biziko dira.



▲ Mainer eta Oscar

### Heriotzak:

#### LANTZ

Maria Jose Juanena Aldabe, **Etxezarreko** etxeandrea, uztailaren 17an hil zen, 73 urtetan.



▲ Mari Jose

#### ULTZAMA Iraizotz

Francisco Javier Ezkurra Aranburu, **Apezeneko** nagusia, uztailaren 11an hil zen 71 urtetan.



▲ Francisco Javier

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK  
PROYKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

**KARRIKOLAR**  
ELEKTRIZITATEA



**629 31 53 32 · 722 766 835**

LIZASO · [karricolaregoitz@gmail.com](mailto:karricolaregoitz@gmail.com)

**GOTELET-A  
KENTZEA**

**FATXADAK  
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA  
(IMPERMEABILIZACIONES)**

**DAVID ELIZONDO PINTURAK**  
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA  
ETA  
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA  
KONPROMEZURIK GABE**

**678623866**

ZIAURRITZ · [argapin@hotmail.com](mailto:argapin@hotmail.com)



# Euskara eroso bizitzeko

Vive el euskera  
cómodamente

**æek**

euskara praktikoa



## Utzamako AEK

**EUSKARA-IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA**

**Maila guztiak · Todos los niveles**

**Guraso taldea 5/6 ordu astean**

**EGA azterketa prestatzeko ikastaroa**

**SAKONTZEN (arauak berrikusi, ohiko akatsak zuzendu...)**

**Taldea edo autoikaskuntza · Grupo o autoaprendizaje**

**Mintzakide egitasmoa (Mintzapraktika egiteko taldeak)**



**Izena eman irailaren 23a baino lehen**

**Matricularse antes del 23 de septiembre**

**Informazioa eta izena ematea · Información y matriculación**

**948 60 47 04 edo 607 622102 · [larraun@æek.eus](mailto:larraun@æek.eus)**

**Utzamako AEK euskaltegia · Larraintzar**

### DIRULAGUNTZAK / BECAS

**Iparaldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak  
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak**